

Kirolarien kupoaren bidez sartu nahi izanez gero, onarpenari lehentasuna emateko, goi mailako kirolariak edo errendimendu handiko kirolariak bereizi behar dira 2007ko uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuaren arabera.

**Goi mailako kirolariak** dute lehentasuna onartuak izateko. 971/2007 Errege Dekretuko 2.2 artikulua arabera, Estatu idazkariak-Kiroletako Kontseilu Nagusiaren presidentek berariaz hartutako ebazpenetan agertzen direnak bakarrik hartuko dira goi mailako kirolaritzat. Esteka honen bidez kontsultatzen ahal dira:

<http://www.csd.gob.es/csd/competicion/01deporteAltaCompeticion/03DepAltCompet/02DepAINiv/>

Goi mailako kirolariak direla egiaztatzen duten ikasleek, aurreinskripzioaldian, Sarbide Bulegoari jakinarazi behar diote goi mailako kirolariak direla, edo, bestela, mezua idatzi behar dute [acceso@unavarra.es](mailto:acceso@unavarra.es) helbide elektronikora, NANA eskaneatuta, edo Sarbide Bulegora joan goi mailako kirolariak direla esateko.

Sarbiderako lehentasunari dagokionez, **errendimendu handiko kirolariak** goi mailako kirolarien atzetik daude, eta 2007ko uztailaren 13ko 971/2007 Errege Dekretuaren 2.3 artikulua arabera daude ordenatuta.

Aipatu artikuluko a), b), d), e) eta f) apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten errendimendu handiko kirolariak direla egiaztatu nahi duten ikasleek Kiroletako Kontseilu Nagusiak emandako ziurtagiri bat aurkeztu behar dute. Interesdunek egingo diote eskaera Kiroletako Kontseilu Nagusiari Espainiako Kirol Federazioen bidez.

<http://www.csd.gob.es/csd/competicion-ca/04esport-d-alta-competicio/esportistes-d-alta-competicio/deportistas-de-alto-rendimiento/>

Aipatu artikuluko c) eta g) apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten errendimendu handiko kirolariak direla egiaztatu nahi duten ikasleek autonomia erkidegoetako organismo eskumendunek emandako ziurtagiri bat aurkezten behar dute.

<http://www.csd.gob.es/csd/competicion-ca/04esport-d-alta-competicio/esportistes-d-alta-competicio/deportistas-de-alto-rendimiento/>

Nafarroako Foru Komunitateari dagokionez, organismo eskumendunei buruzko informazioa [esteka](#) honetan kontsultatzen ahal da. "